# ALTZA

1.999ko Martxoa/Apirila * Altzako Herri Batasuna * Dohainik * 1.Urtea * 6.Zenbakia

# TXALAKA, REINAUGURACION



Han pasado ya 12 años desde que se inauguró Txalaka. 12 años en los que ha pasado de todo, y claro está, también Txalaka se ha ido adecuando a las nuevas necesidades y a los nuevos tiempos. El objetivo era ofrecer un lugar de encuentro a abertzales y de izquierdas, y que fuese un instrumento válido para nuestro trabajo diario político y social. Muchas personas se han volcado y han trabajado para conseguir este objetivo, y en años bastante más duros. Y hoy podemos decir que Txalaka sigue estando viva.

**Abertzale eta ezkertiarren txokoa, gure eguneroko lan politiko eta soziala egiteko tresna**

Este año ha habido cambios sustanciales. Los que conocían el Txoko saben lo frío que ha sido hasta ahora. Pues bien, la calefacción de gas natural es una de las novedades junto con algunos cambios en la decoración. El 27 de marzo Txalaka se vuelve a inaugurar con un mitin a las puertas de Txalaka, un poteo por la zona con trikitixa y una cena popular. Anímate, conoce Txalaka y haz de este txoko tu txoko.

**Melli: Huelga de hambre contra la tortura**

**Elkarrizketa: Altzako Historia Mintegia**

**Korrika 11: konpromezuaren edizioa**

**Contra las horas extras en Zardoya**

# EDITORIALA

Euskal Herrian hainbat gauza aldatu dira oso denbora laburrean, eta agian, dena oso azkar joaten denaren inpresioa egon daiteke. Egun bizi dugun egoera eta duela urte bat bizi genuena zeharo desberdinak dira, baina gatazka politikoak horretan dirau eta Euskal Herriaren zapalkuntza ere bai. Gertutik gogoratzen dugu Blancoren aurkako ekintza eta gero Ezker Abertzalearen kontra piztutako lintxamendu politikoa, Herri Batasunako Mahai Nazionalaren gartzeleratzea edota Eginen itxiera. Herri Batasunaren legalizazio asmoak argiak ziren, baina beste behin, Ezker Abertzaleak iniziatiba politikoa hartu zuen, eta une horretan herritar batasunaren berrindartzeko bidean Euskal Herritarrok sortzen da. Irailean Lizarra-Garazi akordioa sinatzen dute alderdi gehienek, eta egun batzuk beranduago ETAren su etena ematen da. Urriko hauteskunde autonomikoetan Ezker Abertzalearen proiektu politikoa indarturik ateratzen da. Eta honela ematen diogu hasera urte berriari, ilusioz eta itxaropentsu.

Baina indar espainolistek ez dute onartzen guk iniziatiba politikoa izatea eta gatazkaren konponketa guztion nahia eta desioa izanik, PPk horrekin jolasten du, komunikabideetaz baliatuz, gure norabidea nahastu eta desbideratzeko. ETAren su etena ez dago PPri zuzenduta, euskal gizarteari baizik, guk geuk etorkizuna eraiki dezagun, bizitzaren atal eta alor guztietan. Eta horregatik, ustezko kontaktuak, Aznarren deklarazioak eta kaka informatibo guztia. Ezin dutelako onartu Euskal Herrian prozesu bat abian jartzea eta beraiek kanpoan geratzea. Horra hor Udalerrien Biltzarrak, besteak beste, sortu duen lurrikara politikoa alderdi espainolisten artean. Ezin dutelako onartu guk hitza eta erabakia hartzea inori baimena eskatu gabe. Horregatik gerra psikologikoa eta intoxikazio mediatikoa. Eta bitartean, ezin gara geldirik geratu, prozesua atzeraezina bilakatu behar dugu. Gure esku dago, eta ez beste inoren esku; lan eginez, orain arte bezala, herri libre bat eraikitzeko baldintzak ditugulako. Ezin gara geratu Madriletik etorriko denaren zai. Ezker Abertzalea motorra izanik Euskal Herriak pairatzen dituen inposaketa eta eraso guztiei aurre egitea da eginbeharra, arlo guztietatik, Euskal Herri libre eta independientea eraiki arte. Guk daukagu giltza. erabil dezagun eta unea aprobetxa dezagun.

# MELLI: hambre

**Tras cumplir condena en diferentes cárceles del estado francés, el próximo 29 de abril Melli será expulsado del estado francés y puesto en manos de la policía española por quienes será torturado. Para defenderse de estas futuras torturas Melli ha decidido comenzar una huelga de hambre de 35 días el próximo 26 de marzo.**

Melli entró en prisión el 10 de agosto de 1995 para cumplir una condena , que en un primer momento era de 6 años pero que tras una apelación quedó definitivamente en 5. En todos estos años ha pasado por las cárceles de Fleury, Nanterre y desde el 10 de julio del año pasado Neuvic Todos estos cambios se situan dentro de la política de dispersión puesta en marcha por el gobierno francés, y que tras el alto el fuego de ETA se ha ido acentuando. Su estancia en la prisión de Neuvic ha sido especialmente problemática, y los problemas con el director han llegado a tal punto que Melli ha denunciado a este sujeto por las continuas vulneraciones de sus derechos: restricciones en las visitas (han llegado a pedir la verificación de las firmas de algunas de las personas que deseaban visitarle), restricción de libros...

Los problemas con este director se han acentuado últimamente con el tema de la huelga. Una vez comunicada su intención de iniciar la huelga de hambre, el director amenazó a Melli con ponerle en aislamiento si no desistía de esa idea. La intención del director es claramente la de boicotearle la huelga a Melli, vulnerando así su derecho a defenderse ante las torturas que le esperan una vez entregado a la policía española. A pesar de que por el tiempo cumplido en la cárcel,Melli debería quedar en libertad a prime-

# 35 días en huelga de contra la tortura



ros de abril, se le va a retener hasta finales de ese mismo mes, según dicen, por "comportamiento no ejemplar". Ahora, teniendo conocimiento de las intenciones de Melli, éste sospecha que el director podría darle unos días de "gracia" y adelantar así su expulsión, rompiendole la huelga y vulnerando su derecho a defenderse.

Melli tiene muy claro que va a llevar esta huelga adelante, y es consciente de los peligros que conlleva pasar tanto tiempo en ayuno: peligro de cólicos renales, perdida de visión... No debemos olvidar que en los últimos tres años Melli ya ha realizado en diferentes momentos un total de 49 días de ayuno, los últimos 10 apenas hace tres meses tras la entrega de Lopez de Bergara.

Un problema añadido es el de la falta de comunicación. Hay que tener en cuenta que Melli es el único preso político en Neuvic., El procedimiento habitual en estos casos suele ser el de a partir de los 20 días mandar a los presos en huelga al hospital de Fresnes. La familia sólo puede visitarle los fines de semana, y ello supone que si es trasladado entre semana la familia no tendrá noticia del traslado hasta el fin de semana siguiente.

Finalmente, una vez entregado, el futuro de Melli no es nada claro. No tiene causa pendiente en el estado español, y por ello debería quedar inmediatamente en libertad, pero al menos deberá pasar unos días en prisión hasta que se aclare definitivamente su caso.

Ante todo esto no podemos quedarnos de brazos cruzados. En las próximas semanas se realizarán movilizaciones en favor de Melli, que irán desde el envio de cartas al director de Neuvic, concentraciones, un autobus para visitarle... Adi mobilizazioetara!

# Txalaka

# TU TXOKO

## de izquierdas y abertzale

**Ha habido cambios en la decoración de Txalaka que hacen del Txoko un espacio agradable para reunirse. La calefacción de gas natural es uno de ellos, y es uno de los aciertos. A pesar de estar en "obras" todos los fines de semana hay cenas, y es que el calorcito nos anima.**



Si tenemos en cuenta la realidad geográfica de Altza, nos podemos dar cuenta enseguida de que no existe un lugar común para todos los Altzatarras, algo así como la plaza del pueblo o la calle donde todos poteamos. Existen al menos más de 15 espacios diferenciados con vida propia: Herrera ( San Antonio), Larratxo (Txirrita), Jolastokieta, Altza Gaina (Elizasu, Lizarpe), Harria (Harri Berri, Harri Zahar, Erroteta, Santa Barbara, Los Boskos), Darieta, Buenabista, Oleta, Pikabea, Molinao... y cada barrio tiene su propia zona de esparcimiento, e incluso realidades bien diferentes. L'o ideal, para algunos, sería tener un Txoko de Herri Batasuna en cada zona, pero plantear eso en estos momentos cuando menos resulta bastante irreal.Txalaka pretende ser el Txoko de Herri Batasuna de Altza, ese espacio común para todos los Altzatarras de izquierdas y abertzales, aun sabiendo que su ubicación (Larratxo 20) nos limita. Pero no entendemos el txoko sólo como un local donde reunirse, hacer cenas, comidas o jugar a las cartas. Desde el grupo de cultura se pretende hacer una oferta

que va desde la feria de Santo Tomas en Larratxo, la participación en fiestas, el Sagardo eguna en fiestas de Altza Gaina (casco), hasta conciertos, teatro, txarlas, exposiciones etc, etc...

En estos momentos nos encontramos con una comisión de txoko renovada, encaminada a conseguir los objetivos de los que venimos hablando: ofrecer un espacio común a todos los altzatarras y seguir trabajando la referencialidad cultural desde una oferta atrayente y variada.

**Txalakak Altzako Herri Batasunaren txokoa izan nahi du, altzatar ezkerti eta abertzaleen topagunea**

Para esto existe un talde o comisión de cultura encargado de proponer actividades y llevarlas a cabo. Por supuesto, este talde está abierto a todo aquel de vosotros que quiera y esté interesado en el tema.

Por otra parte, impulsar el Txoko significa reforzar la comunicación.; primero entre nosotros, comunicación hacia dentro, y segundo hacia fuera, relaciones de Altza y todo el entorno.

Txalaka Elkartea ha cumplido 12 años, ha superado una etapa importante. El

**Bada Txalakan Kultur talde bat, denontzat irekia, kultur ekintza desberdinak planteatu eta burutzeko.**

27 de marzo, debido a algunos cambios de imagen realizados en la sociedad, se hará una reinauguración a la que estais invitad@s.

Por otra parte, todo aquel que quiera hacerse socio de Txalaka no tiene más que ponerse en contacto con nosotros (943.39.28.75). Hacerse soci@ está al alcance de cualquiera. No existe una entrada a pagar como en otras sociedades. Y además hay oferta especial de pago de cuotas según la situación eco-

**Bazkide egiteko aukera ezin hobea dago: 1000 pta.ako kuotak (gazte eta langabetuentzat) eta 2500 ptako kuotak bitarte.**

nómica: desde 1000 pesetas para jóvenes, parados... hasta las 2500 para los más "ricos". No lo dudes más y haz de Txalaka tu txoko, el Txoko de Herri Batasuna de Altza.

# Iritzia

**Txalaka sortu zenean, hamaika urte besterik ez zuen neskato gazte bat nintzen. Beraz, ez nituen Txalakako hasierako urte horiek ezagutu. Urteetan aurrera joan ahala, piskanaka-piskanaka Txalakako giro jatorrean murgiltzen joan nintzen, gaur egun Txalaka Elkarteko diruzaina izatera pasa naizelarik. Zerk bultzatu nau Txalakan ibiltzera?**

**Lehenik eta behin abertzaleen gune bat izanik erabat identifikatua sentitu naiz. Gaztea naizen aldetik ere gazteentzako gune egokia dela deritzot, gazte bilgune bat izan dezakegularik Altzan. Aktibitate desberdinak antola daitezke bertan, barrikoteak, bideo emanaldiak, kontzertuak... eta gure lanerako tresna egokia da.**

**Honetaz aparte, Txalakan belaunaldi desberdinen arteko komunikazioa lantzen dugu. Zaharrak beren pasadizo xelebreak eta xumeak kontatuz eta guk, berriz, gure herrian eta gazte garen aldetik topatzen ditugun problematikak azalduz.**

**Besterik gabe esan, zuk zeuk ere baduzula Txalakan zure tokia, gai desberdinen inguruan lan egiteko aukera, poteatzeko, eta nola ez beste edozein elkartek eskaintzen dizkizun zerbitzuetaz gozatzeko.**

**Judith Lertxundi**

# Badator Korrika 11

Martxoaren 19an Korrikaren hamaikagarren edizioa martxan jarriko da Iruñean. Korrika Euskal Herri osoko gizartea astintzen duen gertakaria bilakatu da. Korrika ez da ekitaldi bat besterik gabe, euskararen alde antolatzen den ekitaldi jendetsuena eta garrantzitsuenetarikoa baizik. Aipatu bezala, aurtengo edizioa martxoaren 19an abian jarriko da, eta 9 egun berandugo, martxoaren 28an, gau eta egunez Euskal Herri osoa zeharkatu eta gero, Donostiara iritsiko da, 2.100 Km baino gehiago egin ondoren. Honek guztiak, Korrikak berak, Euskal Herriko gizarteak bere hizkuntza berreskuratzearen alde egiten duen apostuaren tamaina islatzen du. Korrika gizarte osoaren partehartzea ahalbideratzen duen ekitaldia da. Herri elkarteek, pertsonaia ospetsuek, enpresek, kirol taldeek, instituzioek, komunikabideek... denek dute euskararen aldeko jai erraldoi honetan beren lekua, eta zuk zeuk ere bai. Azken finean Korrikan parte hartzeko bideak asko dira: Kilometroak erosten, petoa erosiz, Korrika lagun txartelaren bidez, kuestazioetan lagunduz, materiala eta oroigarria erosiz, batzordeetan parte hartuz, eta nola ez! petoa jantzita korrika eginez.

Gainera aurtengo edizioan altzatarrok azken kilometroetan parte hartzeko aukera dugu, gure herria ibilbidearen azken 10 kilometroen barruan baitago, eta aste bat lehenago ere lasterketan parte hartzeko aukera izango dugu zeharka gure herritik pasako baita.




**Korrika 11k azken egunean altzan zehar egingo duen ibilbidea**

Korrikaren edizio honen berezitasuna konpromezuan datza. Euskara Euskal Herri osoko hizkuntza da eta Euskal Herria euskalduna nahi dugu euskal herritarrok. Nahi hori gauzatzeko hamaika lan egin dira eta egingo dira oraindik, eta lan hori guztion artean egin behar dugu, denon beharra den euskara aurrera ateratzeko, bakoitzak ahal duena eginez. Horretarako guztion konpromezua derrigorrezkoa da, beti ere bakoitzaren ahalmenen araberakoa. Hori da aurtengo Korrikaren edizioak bultzatuko duen mezua, Euskal Herria osoa euskalduntzeko norberak konpromezu tinkoa hartzea. Egin dezagun bada korrika!

# Por la desaparición de las

# HORAS EXTRAORDINARIAS

La tasa de paro en Hego Euskal Herria es realmente alarmante. El 20% de la población activa se encuentra en el paro, prácticamente el doble que en Europa. Y estos datos en algunos sectores son verdaderanmente preocupantes: jóvenes (42%) y mujeres (24%). Estos datos ya de por si anormales, chocan con una cifra de horas extras no menos anormal, que frena la creación de miles de puestos de empleo. Y esta es en estos momentos una cuestión clave.

Si bien es difícil cuantificar el número de horas extras realizadas en Hego Euskal Herria y su repercusión en la creación de nuevos puestos de empleo, en total, a traves de la disminución radical de horas extras se podría llegar a la nada despreciable cifra de 20.000 nuevos empleos.

## Ordu extren murrizketak 20000 lanpostu sor litzake

En este sentido merece reseñar el recientemente firmado texto del Consejo de Relaciones Laborales (formado por ELA, LAB, UGT, CCOO y Confebask),en el cual se recoge la preocupación acerca de las horas extras, contratos de sustitución, precariedad y semana laboral de 35 horas. Este texto a su vez recoge la necesidad de implicación de la administración pública principalmente en la función de vigilancia de cumplimiento de la normativa laboral.

## -Altzan ordu extren kontrako dinamika Zardoya-Otisen zentratu da

Todo este movimiento contra las horas extraordinarias, también tiene su reflejo en Altza, gracias a la campaña que están llevando los jóvenes en este caso contra las horas extras que se realizan en la empresa Zardoya - Otis. Y es que en este problema hay unos culpables con nombres y apellidos.

Meter horas extras es insolidario; dificulta la creación de empleo, y todos nosotros deberíamos hacer una profunda reflexión, evitando meter nosotros esas horas y denunciando los casos que conozcamos. Por el reparto del trabajo, Ordu extrarik ez!

## ALTZA IRUDITAN

**Pasear por Larratxo sin mirar al suelo es un peligro constante por las numerosas mierdas de perro que inundan la zona y que resultan verdaderamente asquerosas. En otras ciudades existen servicios para perros. ¿ Por qué no en Altza? ¿Alguien cree que merecemos estar rodeados de cacas? Solución ya!**



GAIA: ALTZA HERRIA

Iñigo Landa (Altzako Historia Mintegia)

# " Anexioak Altza auzo periferiko batean bihurtu zuen eta honekin herri izaera galduz joan da"

**- *Nola sortu zen taldea? Ideia nondik sortu zen?***

- Duela 12 urte hasi ginen, Casares Kultur Etxearekin batera eta honen batzorde bat bezala. Pentsatu genuen beharrezkoa zela Altzaren memoria berreskuratzea eta kultur etxeak baliabideak eskaintzen zizkigula lan horretan hasteko. Denborarekin konturatu ginen ez zela nahikoa Kultur Etxearen batzorde moduan funtzionatzea eta badira 4 urte elkarte autonomo bat garela, nahiz eta Kultur Etxearekin elkar lanean jarraitu. Honez gero, gure elkarteak baditu 72 bazkide.

**- *Zergatik historia mintegi bat?***

- Egiten dugun lan guztia ez dago bakarrik historiari lotuta, nahiz historia gure abiapuntua izan. Haseran anexioaren gaiak pisu handia izan zuen. Anexioa gerra zibila bu-katu eta frankistek hartutako erabakia izan zen. Eta erabaki hori hartu zuten altzatarrek behin eta berriro azaldutako iritziaren kontra. Anexioak Altza Herria auzo periferiko batean bihurtu zuen eta honekin batera bere izaera galduz joan da. Horregatik ikusten genuen altzatarrok gure historiaz jabetu behar ginela. Mintegia hitzak , beste aldetik, bi esanahi ditu. Mintegia hitzak ikerketa gunea esan nahi du, eta baita hazitegia ere. Gure elkarteak biak izan nahi ditu, ikerketa gunea eta hazitegia. Ikertu eta ezagutu nahi dugu gure herria nolakoa izan zen eta nolakoa den, zergatik horrela etab... Eta horretarako giroa eta baliabideak bilatu behar ditugu. Erein behar dugu etorkizunean fruituak jasotzeko.

**- *Zer nolako lana egiten duzue?***

- Egia esan saltsa askotan sartuta gaude. Hasi ginen aste kulturalak eta erakusketak antolatzen, argazkiak eta bestelako agiriak biltzen... Azken urteotan, elkarte bezala antolatu ginenetik, gure ekintzak ugaritu dira. Urtean behin beka bat ematen dugu Altzari buruzko ikerketak bultzatzeko. Casaresekin batera, jarraitzen dugu agiriak, argazkiak eta mota guztietako materialak biltzen eta katalogatzen, edonoren esku dagoena. Tokiko Bilduma deitzen diogu. Beste aldetik, argitalpenak dauzkagu. Garrantzitsuena eta ezagunena "Altza, hautsa kenduz", dagoeneko 5. zenbakia prest dago eta udararako aterako da. Hiru hilabetean behin "Estibaus" buletina ateratzen dugu. Interneten ere orri bat sartu dugu Altzaren berri eta gure elkartearen berri emateko. Noiz behinka eskurtsioak egiten ditugu. Beno, zaila da guztia aipatzea... Egia esan zeregin asko dago eta ez gara nahi genukeen guztira heltzen.

**- *Zenbat historia talde daude eta nolako harremanak dauzkazue?***

- Gurea bezalako talderik ez da Gipuzkoan ezagutzen. Jakina, udalak diren herrietan udala bera arduratzen da gai hauetaz eta guk dauzkagun baino baliabide gehiago dituzte. Hartu emanak ditugu Gipuzkoa eta Nafarroako hainbat elkarte kulturalekin eta baita zenbait udalekin ere material trukaketa egiteko. Izan ditugun harremanak oso interesgarriak izan dira. Kanpotik jaso ditugu desanexioei eta patrimonioaren defentsari buruzko esperientziak, eta guk eskaini dugu, batez ere Tokiko Bilduma antolatzeko eredua.■

**Por un problema en el sistema de reparto muchos de vosotr@s no habreis recibido el número anterior de "Altza Eginez". Esperando que no se vuelva a repetir junto con el número de este mes tambien te mandamos el número anterior**